



IK4 IDEKO

Research Alliance

URTEKO TXOSTENA
2012



Jesús María Iriondo

IK4 Research Allianceko Presidentea



Research Alliance



Gauza garrantzitsu gutxi gertatzen dira kasualitatez. Eta, noski, ez da kasualitatea IK4k EAEko I+Gren eragile gisa gaur egun duen posizioa ere. Hori dela eta, merezi duen gisa aitortu behar da, gaur egungo egoera ekonomiko txarrean, hain zabaldua dagoen gaitzaren sintomarik okerre-nei ihes egiteko adinako osasuna erakutsi izana gure Aliantzak. Hamaika azalpen eta zentzuzko analisi egin daitezke horri buruz, baina, ziurrenik, azalpen eta analisi horietan guztietan, gauzak ondo egin izanaren pertzepzioa agertuko litzateke azkenean.

Gaur egun, IK4 projektua finkatuta dago, bideragarria da eta etorkizun handia du, eta hori horrela da Aliantza hori osatzen duten pertsonek epe ertain eta luzerako projektu baten alde egiteko argitasuna izan zutelako eta aurrean zituzten erronka zailei aurre egiteko estrategia baten oinarriak ezarri zituztelako. Ikuspegi estrategiko horri esker, posizio lehiakor onuragarri batean

kokatu gara, eta horrek aukera ematen digu bidean ditugun zaitasunei aurre egiteko behar ditugun tresnak aurreratzeko.

Bidezkoa da ondo egindako gauzak aitortzea, baina horrek ez du esan nahi ahalegina egiten jarraitu behar ez denik etorkizunerako bidea are gehiago hobetzeko. Aitzitik, oinarriak eta bideak indartzeko garaia da, IK4 erraztasunez molda dadin hainbeste zalantza sortzen dituen etorkizunean. Horretarako, pauso ikaragarria eman dugu, joan den abenduan onartu zen 2013-2016rako Plan Estrategiko berriaren bidez.

Plan hori guztiaren gidaria izango da datozen lau urteetarako; izan ere, han zehazten dira IK4k testuinguru berrian bete beharreko zereginaren ildo nagusiak. Besteak beste, ildo hauek ezartzen dira Plan Estrategiko berrian: sortutako balioa maximizatzea, baliabideen erabile-

ra eraginkorra bultzatzea denboran jasangarria izango den eredua lortzeko, industria-politikak definitzeko orduan administrazioarekin batera lan egitea eta garapen ekonomikoko politika publikoak bultzatzea ezagutza sortuz.

Oinarri horren gainean, zazpi erronka eta 21 helburu estrategiko zehazten ditu Planak. Laburbilduz, hauek dira datozen urteetarako erronkak: proiektu komuna finkatzea, ikerketa-programak koordinatzea, eskaintza teknologikoaren antolakuntzan aurrera egitea, gardentasuna eta informazio-partekatzea bultzatzea, bezeroak eta merkatuak bilatzea estatuan eta nazioartean, erakundeen hizketakide-rola indartzea eta talentua erakarri eta atxikitzea.

Horren guztiaren bidez, asmo handiko helburu bat lortu nahi da: bide-zati zail horren amaieran, 2016an, IK4 Europako I+Gren erre-

ferentzia izatea. Ez da helmuga erraza, inondik ere. Baino ziur nago, orain arte egin dugun bezala, gure helburuak lortzeko gai izango garela, proiektu hau osatzen dugun 1.400 lagun baino gehiagoren konpromisoari esker. Azken batean, talentudun pertsonak baitira gure aktibo nagusia.



Jose Miguel Erdozain

IK4 Research Allianceko Zuzendari Nagusia



Research Alliance



Hasteko, ezinbestekoa da gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoari aipamena egitea. Izan ere, dagoeneko bost urte dira krisi gogor hau hasi zela eta gauzak hain gordin jarri zirela ekoizpen-sarearentzat, enpresekin dugun gerutasuna dela eta IK4k hain ondo ezagutzen duen ekoizpen-sarearentzat. Zorionez, gerutasun horri esker, mezu baikorra eman dezakegu, bai baitakigu EAeko enpresentatz I+G beti izan dela funtsezko tresna lehiakorrago izateko, eta, beraz, etorkizuneko inbertsio gisa ulertzen dutela, eta ez epe ertain edo luzean itzulkinik ez duen gastu gisa.

Gure ustez, IK4ko kideok behar bezala interpretatu dugu errealitate hori, eta horrek garantzi berezia du gaur egungo egoeran. Hala, aurrea hartzen jakin dugu, enpresei balio gehiago ematearen alde eginez eta gure ekarpenea ezagutza-eskuadatze bidez maximizatz. Egingako ahaleginari esker, gure jarduera mantendu eta indartu egin ahal izan dugu. Gaur egun, 800 enpresa baino gehiago dira gure bezero,

eta, beraz, I+G arloan erreferentiazko erakunde gisa dugun posizioa finkatu dugu.

Egoera horretan, IK4k 2012ko ekitaldian lortu dituen emaitzek ezin dute izan irakurketa baikorra besterik. Gure Aliantzak 105 milioi eurotik gorako sarrerak lortu ditu. Horietatik 95 milioi euro I+G arloko jarduerei dagozkie (urreko ekitaldian lortutako emaitzaren oso antzekoa da hori).

IK4 Europako hamar korporazio teknologiko pribatu nagusien artean kokatzen duten zenbakien hoztasuna alde batera utzirik, azpimarratu nahiko nuke sarreren % 63 enpresen kontratazio zuzenen bidez lortzen dela. Ratio horri dagokionez, Europako erakunde nagusia gara.

Datu horrek oso argi erakusten du IK4k duen posizio ona, kontuan izanik administrazio publikoek beren aurrekontuetan hainbat doikuntza egin behar izan dituztela eta horrek eragina izan duela I+G arloko programei zuzendutako partidetan. Egoera hain txarra izan arren, IK4k

bere inguruaren baldintzetara egokitzen jakin du, eta administrazioek ikerketaren aldeko programetara zuzendutako diru-sarrerak ia bere horretan mantentzea lortu da.

Horiek horrela, IK4k 66 milioi euro inguruko itzulkinak lortu ditu EBren VII. Esparru Programa izandako parte-hartzeari esker. Horrez gainera, 168 ikerketa-projektutan hartu du parte, eta horietatik 48 gidatu ditu.

Bestalde, know how teknologikoaren arloan egiten dugun ekarpenaren bidez ikusten da jarduera ekonomikoaren sorkuntzan dugun balioa. 2012an, 36 patente-eskaera izan genituen, eta 15 patente eman ziren. Horiek kontuan izanda, dagoeneko 145 patente ditugu indarrean. Halaber, joan den urtean 20 milioi euroko inbertsioak egin genituen.

Datu horiekin, pozik egoteko moduan gaude. Atzera begiratzen dugun bakoitzean, benetan harro sentitzen gara, ehunka enpresari lagundu baitiogu etorkizuna hobetzen. Hala eta guztiz ere, gure buruari loreak botatzen aritu

beharrean, ahalegin bikoitza egin behar dugu etengabeko zalantza-egoeran bizi beharrean dagoen enpresa-sareari laguntzeko.

Bide horri eutsi eta aurrera egin behar dugu, eta Alianza etorkizun aldakor eta zail horretara egokitzen jarraitu. Eta hori lortzeko, zalantzak gabe, ezinbestekoa izango da 2013-2016rako Plan Estrategiko berria, ikerketa aplikatuaren arloan IK4 Europako erreferentzia gisa finkatzeo oinarriak jarriko baititu.

Badakit IK4 osatzen dugun guztiak artean lortuko dugula.



AZTERLAN CEIT CIDETEC GAIKER IDEKO IKERLAN LORTEK TEKNIKER VICOMTECH

4 JARDUERA-EREMU ESTRATEGIKO



Energia



Garraioa eta Mugikortasuna



Osasuna



Fabrikazio aurreratua

2012KO ZIFRAK

DIRU-SARRERAK
106 M€

57,7% Enpresak

22,0% Eusko Jaurlaritza

12,1% EB

6,7% EA0

1,5% Foru Aldundiak

9

Zentro
teknologiko

12

Egoitza

93

Gobernu
organoeztako
enpresa eta
erakunde

1.406

Profesional

24%

(333)
Doktore

36

2012an
eskututako
patenteak

15

2012an
onartutako
patenteak



01. 06 ORR.
SARRERA

02. 07 ORR.
IKERKETA ETA GARAPEN
TEKNOLOGIKOKO DEPARTAMENTUA

2.1. 09 ORR.
KONGRESUAK ETA ARGITALPENAK

2.2. 10 ORR.
IKERKETA LERROAK:

- Berrikuntza Estrategikoa
- Produkzioaren kudeaketa
- Dinamika eta Kontrola
- Diseinu Mekanikoa
- Software Adimenduna
- Transformazio Prozesuak
- Ikuskapena eta Neurketa
- Mikroteknologia eta Ultradoitasuna

2.3. 19 ORR.
NAZIOARTEKO JARDUERA

03. 20 ORR.
BERRIKUNTZA ETA USTIAPEN
TEKNOLOGIKOKO DEPARTAMENTUA

04. 21 ORR.
ADMINISTRAZIOA ETA ANTOLAKETAREN
GARAPEN DEPARTAMENTUA

4.1. 21 ORR.
BALANTZE EKONOMIKOA

4.2. 22 ORR.
LANGILEAK

4.3. 23 ORR.
KONTUEN AUDITORIA

05. 24 ORR.
GOBERNU
ORGANOAK

06. 25 ORR.
LEHENDAKARIAREN
MEZUA

07. 26 ORR.
BIEMH
2012

**BERRIKUNTZA,
LEHIAKORTASUNAREN
GAKOETAKO BAT**

01 | SARRERA



"Gertuko enpresekin izan dugun lankidetza ibilbide luzearen ondorioz, enpresen beharrizanak eta lan egiteko moduak oso ondo ulertzeko aukera eman digu".

2012 ekitaldiaren balantza egitea dagokit berriz ere. Egungo egoera ekonomikoa ezaguna da guztiontzat, beraz, IK4-IDEKOri gogobeteko ekitaldia izatea ahalbidetu dioten ezaugarri garrantzitsuenak azpimarratzea gustatuko litzaidake.

Gure jarduera betidanik berrikuntzara bideratu izan dugu, gure ikerketa merkatuan balioa sortzeko helburu praktikoarekin egin izan ditugu eta enpresen ondoan lan egin izan dugu. Gaur, inoiz baino argiago dauagu bide horretan sakondu beharra dauagula, berrikuntza zikloak azkartuz eta kalitatezko ikerketa eta enpresek dituzten beharrak egoki uztartuz. Modu honetan, gure enpresek nazioartean lehiatzeko egiten dituzten eskari zorrotzagoei erantzuna ematen diegu.

Gertuko enpresekin izan dugun lankidetza ibilbide luzearen ondorioz, enpresen beharrizanak

eta lan egiteko moduak oso ondo ulertzeko aukera eman digu. Urteetan zehar izan dugun eginkizun honi esker, lankidetzarako metodoloziak garatu ditugu eta enpresei eskaintzen dizkiegun balioen eremuan eraginkorrakoak izateko aukera eman digu. Horrela bada, Berrikuntza Estrategikoaren eremuan garatu ditugun hainbat metodologia azpimarratu behar ditugu, ondorengo gaiak biltzen dituztelarik: Adimen Lehiakorra, posizionamendu lehiakorraren eta produktu eta merkatuaren berrikuntza planen azterketak, dibertsifikazio aukeren azterketa.

Erregistratuta dauden metodologia hauek, enpresek oso ondo baloratu duten laguntza estrategikoa eskaintzeko aukera ematen digute dagokien softwarearekin batera.

Logikari jarraiki, maila estrategikoan izandako balio-ekarpenak, kontratupeko ikerketa proiektuekin osatzen dira eta beraien produktu eta



Ramón Uribe - Echeberría
IK4-IDEKOko Zuzendari gerentea

zerbitzuetan eskatzen dituzten teknologia berritzaleak eskaintzen dizkiegu enpresei.

Pasa den urteko jarduerarekin alderatuz, zentroaren jarduera hazi egin da, I+G+b projektuen fakturazioa %1,5 gehiago izan delarik. Enpresekin izan ditugun kontratupeko proiektuak guztiarekiko %58 izan dira eta ikerketa orokorreko jarduerak diru-sarreren %42 izan dira. Oreka egokia da enpresen eskariei erantzuteko eta era berean gure gaitasunak garatzen jarraitzeko enpresei teknologia eta ezagutza berriak eskaintzen jarraitu ahal izateko etengabeko ziklo jasangarri batean.

Zentroaren ikerketa orokor eta trebakuntzaren jarraituz, aurrerapen esanguratsu bat eman dela esan dezakegu; patente berri bat lortu dugu eta bi patente osagarri eskatu dira. Langileen kualifikazioa ere hobetu egin da, langileen %23ak doktoretza gradua duelarik.

Nazioarte mailan, Europako VII. Programa Markoan parte hartu dugula azpimarratu deakegu, non Europako projektuen diru sarrerak %15 izan dira diru-sarrera guztien kopuruarekiko.

Ekitaldian lortu ditugun projektuen kaptazioa ere ona izan dela aipatuko nuke. Ondorioz, eta datorren ekitaldira begira, 2012.urtea proiektu-kartera onarekin bukatuko dugu. Honekin guztiarekin eta IK4 Aliantzaren barruan landu dugun 2013-2016 Plan Estrategikoarekin, etorkizunari ilusioarekin eta oinarri sendoarekin aurre egingo diogu.

Sarrera honi amaiera emateko, memoria hau irakurtzera gonbidatu nahi zaituztet. Bertan, 2012ko ekitaldiari buruzko gai esanguratsuenak xehetasun handiagoarekin irakurri hala izango dituzue.

02|

IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO DEPARTAMENTUA



"Ikerketa planak markatutako estrategiak sendotzea izan da urte honetako ezaugarri nagusiena, gure ikerketa estrategiaren etorkizuneko proiekzioaren bistaratzearkin batera".

2012.urtea aldi estrategikoaren azken urtea izan da eta horrekin batera, ikerketa jardueraren orientazio eta egitura planteamenduak, lortutako helburuak eta erronka berri eta etorkizuneko apustuen planteamendua berrikusteko azken urtea ere. Ikerketa jardueren emaitzak, egonkorak diren, bide luzea egin eta epe motz-ertaineko bitarteko emaitzetan oinarritutako proiektuetan bakarrik emanen direla kontuan izanda, alde operatibotik, Ikerketa planak markatutako estrategiak sendotzea izan da urte honetako ezaugarri nagusiena, gure ikerketa estrategiaren etorkizuneko proiekzioaren bistaratzearkin batera.

Horrela, zortzi Ikerketa lerroekin Planean zehaztutako ikerketaren egitura sendotu dugu (Berrikuntza Estrategikoa, Produkzioaren Ku-

deaketa, Diseinu Mekanikoa, Dinamika eta Kontrola, Software Adimenduna, Transformazio Prozesuak, Ikuskapena eta Neurketa, Mikroteknologia eta Ultradoitasuna). Plan honek zentroaren espezializazio sendotuena eta azken urteetan teknologia eta garapen berritzaleetara bideratutako apustuak biltzen ditu IK4-IDEKOri zein bezero industrailei teknologia-aukera eta merkatu-aukera berriak eskaintzen dizkiolarik.

Egituraren barruan, gure ikerketaren ardatz nagusi gisa, jasangarritasunaren eremuan apustu finkoa egin dugu, urteetan zehar gure Ikerketa Lerro egonkorrenetan garatutako edukiak jasoko dituelarik. Zentroaren jasangarritasunaren estrategia lideratzen duen Produkzioaren Kudeaketa lerroa: eko-

ergainkortasun gaien kontrolerako parametro gakoen definizio, neurketa eta kontrol metodologien garapena eta eraginkortasun ekologiko handiena duten mekanizazio prozesuen garapena (hozte optimizatua "Minimum Coolant Grinding"). Horietako batzuk asmakuntza-patente berriak ekarri dituzte. Diseinu Mekanikoa lerroa: makinen eko-diseinua eta bizitza zikloen azterketa. Software Adimenduna lerroa: makina eta mekanizazio lerroetako eko-eraginkortasun parametroen komunikazio, monitorizazio eta tratamendu moduluengen garapena. Azpimarratzeko da azken ekitaldi honetan martxan jarri dugun ETORGAI ECOFAB proiektua, bizitza-zikloa kontuan hartuta pieza estructural handien fabrikazio eraginkorrari buruzko proiektua, teknologikoki IK4-IDEKO lider izan eta balio-

katean liderrak diren enpresak sartu izan diren proiektua.

Mekatronika arloan izandako aurrerapenak ere azpimarratzekoak dira (kasu honetan Dinamika eta Kontrola lerroak lideratuta): beherizki, sistemei moteltzea eragingo dieten irtenbideen bidez, makinen eta prozesuen dinamikan zentratutako garapenak daude. Arlo honetan industriaratu daitezkeen emaitzak lortu dira eta ondorioz, makina eta prozesuen prestazioen arloan aurrerapausu izugarriak egitea ahalbidetzen dute, baita nazioarteko eremu zientifiko-teknologikoan liderraren kokalekua izatea ere.

Hauek dira aldi estrategiko honetarako funtsezko apustuak:



Rafael Lizarralde

Director del Departamento de Investigación
y Desarrollo Tecnológico

02|

DEPARTAMENTO DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO TECNOLÓGICO



· Ikuskapen eta Neurketa lerroa: Ikuskapen ez-suntsitzale eta kontaktu gabeko Neurketa dimensionalen teknika berrietan izandako garapena, aplikazio industrializatuei bide ematen ari da, bai sistema autonomo gisa, baita makinen implementazio gisa ere.

· Mikroteknologia eta Ultradoitasuna lerroak eta Prozesuen Transformazio lerroak ondorengoak lortzeko aukera eskaini digute: alde batetik, negozio aukera berriak iza-

tea. Azpimarratzeko da osasun-bio arloan hasitako garapena, laborategi eta terapia birsortzaileetarako ekipu automatizatuen prototipoen garapena, etorkizun komertzial oparoa dutenak. Beste alde batetik, etorkizun hurbilago batean, lerro hauek espezializazio tradicionalenarekin egin dute aurrera eta azken belaunaldiko makina-erremintei zuzendutako ultradoitasun irtenbideak eskaini dizkiete, baita material berrien lanketarako prozesuak ere (Transformazio Pro-

zesuak), bereziki, konpositeen lanketarako teknologia berritzaileak garatuta.

Ikerketa Planean zehaztu eta urte honetan itxiko diren estrategia eta apustuen artean, sarean lan egitearen lehentasuna ere badago, hurbileko lehentasunetatik hasita, IK4 izan daitekeena; Aliantza barruan koordinatutako ekimenak nabarmen gehitu dira, gure kasuan Aliantza Manufacturin-ean referente bihurtzeko eta nazioarteko proiekzio

garrantzitsua izateko helburu zehatzarekin, Europako projektuetan, nazioarteko foroetan, presentzia izan dugularik (2012a izan da proposamen kopuru handienean parte hartu eta lankidetza kopuru handiena izan dugun urtea). Hurbileko lehentasun honi jarraiki, gure espezializazio eremuetan referente diren zentroekin, networkin-aren ekimen bereziak ere egin ditugu.

02 | 01. KONGRESUAK ETA ARGITALPENAK

NAZIOKO ETA NAZIOARTEKO KONGRESUAK

Raw part characterisation and automated alignment by means of a photogrammetric approach

Zatarain, M., Mendikute, A., & Inziarte, I.

Advances in centerless grinding technology

Hashimoto, F., Gallego, I., Oliveira, J. F., Barrenetxea, D., Takahashi, M., Sakakibara, K., & Oga

Self-tuning semi-active tuned-mass damper for machine tool chatter suppression

Aguirre, G., Gorostiaga, M., Porchez, T., & Muñoa, J.

A machine vision approach for automated raw part alignment in machine tools

Mendikute, A., & Zatarain, M.


CIRP Annals-Manufacturing Technology 61/1/2012, 383-386

CIRP Annals-Manufacturing Technology 61/2/2012, 747-770

ISMA International Conference on Noise and Vibration Engineering 2012, 109-124

MATAR Machine Tools, Automation, Robotics and Technology 2012, 12.059

Ondorengo orrialdeetan gonbidatu nahi zaituztegu gure erakundea osatzen duten 8 ikerketa lerroen jarduera espezifikoari gainetik begiratzera, lerro bakotzaren kudeatzailearen eskutik.



SIC ERAGIN HANDIKO ARGITALPENAK

Aldizkaria	Argitaratu den aldizkariaren zenbakia	Izenburua	Egilea
Journal of Biobased Materials and Bioenergy	Volume 5, Issue 4, 483-490	Experimental analysis of drilling damage in biocomposite laminates manufactured by resin transfer moulding	Lopez-Arraiza, A., Amenabar, I., Sarrionandia, M., & Aurrekoetxea, J.
Revista de ingeniería Dyna	Volume 87, Issue 2, pages 160-168	Simulación y optimización de los recursos de Servicio de Asistencia Técnica (SAT)	Uriarte Zearra, A., Ricondo Iriondo, I., Goti-Elordi, A., & Bogataj, K.
Journal of Composite Materials	Volume 46, Issue 6, pages 717-725	Experimental analysis of drilling damage in carbon fibre reinforced thermoplastic laminates manufactured by resin transfer moulding	Lopez-Arraiza, A., Amenabar, I., Agirregomezkorta, A., Sarrionandia, M., & Aurrekoetxea, J.
Mechanical Systems and Signal Processing.	Volume 30, pages 218-231	Asymmetric-hysteresis compensation in piezoelectric actuators	Aguirre, G., Janssens, T., Van Brussel, H., & Al-Bender, F.
Journal of nanostructured polymers and nanocomposites	Volume 8, Issue 4, pages 112-119	Crystallization behaviour in PLLA/MWCNT AND PLLA/MWCNT-COOH Nanocomposites	Lizundia, E., Sarasua, J.R., Armentano, I., & Kenny, J.M.
Journal of Infrared, Millimeter, and Terahertz Waves	Volume 34, Issue 2, pages 152-169.	In Introductory Review to THz Non-Destructive Testing of Composite Mater	Amenabar, I., Lopez, F. & Mendikute A.
Machining Science and Technology	Volume 16, Issue 4, pages 501-523	Model-based assistant tool for the setting-up and optimization of centerless grinding process	Barrenetxea, D., Marquinez, J. I., Álvarez, J., Fernández, R., Gallego, I., Madariaga, J., & Garitaonaindia, I.

02| 02. IKERKETA LERROAK



IK4-IDEKOen espezialistak gara
fabrikazio teknologietan eta
produkzio industrialean



BERRIKUNTZA ESTRATEGIKOA

Diseinua eta laguntza
berrikuntza planak
lortzeko.




PRODUKZIOAREN KUDEAKETA

Produkzio- prozesuen
diseinua, garapena eta
hobekuntza.



DINAMIKA ETA KONTROLA

Makinen eta prozesuen
portaera dinamikoaren
ezaugarriztea eta
optimizazioa.




DISEINU MEKANIKOA

Prestazio handiak
dituzten produktuen
diseinua eta garapena.



SOFTWARE ADIMENDUNA

IKTak fabrikazio
teknologia eta produkzio
industrialerako.



TRANSFORMAZIO PROZESUAK

Materialak eraldatzeko
teknologia ez
konzentzionalak.



IKUSPENA ETA NEURKETA


Doitasuna, Kalitatea,
Fidagarritasuna
eta Produktibitatea
fabrikazio prozesuetan.

MIKROTEKNOLOGIA ETA ULTRADOITASUNA

Doitasun aurreratudun
Ingeniaritza:
pieza handien
mikrofabrikaziotik
mekanizaziora.

02|

02. IKERKETA LERROAK



BERRIKUNTZA ESTRATEGIKOA



Ander Azkarate
Berrikuntza Estrategikoa lerroaren kudeatzailea

IK4-IDEKOren Berrikuntza Estrategikoa lerroaren jarduera nagusia, metodo eta erremintak garatzea da. Metodo eta erreminta hauek erakunde erabiltzaileei aukera ematen die beraien berrikuntza prozesuak eta estrategiaren kudeaketa modu eraginkorran gauzatzeko.

Esperientzia praktiko berdingabeen kontrastatutako ikerketen bidez ikasitakoa, emaitzekin bateratzeko ardua dauagunez, 2012an Lerro honek bere jarduera 3 eremutan zentratu du bereziki. Lehenbizi, Estrategia eta Teknologiaren Kudeaketa: hainbat enpresa industrialetan hausnarketa estrategikoaren prozesua lideratu da eta berrikuntza estrategiei erantzuna emango dien teknologia eta produktuen planifikaziorako Road Map kontzeptua txertatu da. Bigarrenik, hainbat ere-


mutan COMPETE metodoaren ezarpena, gure IDK Intelligence SUITE 1.0 softwarean oinarrituta, enpresa industrialetan adimen lehiakorraren unitateak sortzeko. Azkenik, EXPLOIT metodoa garatu eta egiaztu da teknologia aurre-lehiakorren ustiapena lantzeko gida gisa.

Landutako beste mugarririk, COMODE metodoaren garapena izan da; zentro teknologiko eta enpresa batzen arteko lankidetza eredu da berau, berrikuntzaren kudeaketarako eta teknologiaren transferentziarako. IK4-IDEKOk enpresekin lankidetzan ibilbide luzea duen arren, ekitaldi honetan bukatu dugu aipatutako lankidetza hauen azterketa analitikoa egitearekin eta eremu honetan egindako ikerketaren kontrastearen ondoren, harremanetarako eredu teoriko propio bat ezarri da.

Hainbat dira 2013rako definitu ditugun erronka esanguratsuenak. Alde batetik, IDK Intelligence suite 2.0-aren belaunaldi berria, informazio estrategikoaren azterketa eta tratamendua optimizatuz. Horrez gain, berrikuntzaren kudeaketarako eredu definizioa eta garapena optimizatuko dira industria arloko enprestara bideratuta. Azkenik, Europa mailako teknologia emergente eta aurre-lehiakorren ikerketen ustiapen prozesuen dinamizazioa ere landuko da.

02|

02. IKERKETA LERROAK



PRODUKZIOAREN KUDEAKETA



Oier Zelaieta
Produkzioaren kudeaketa lerroaren kudeatzailea

IK4-IDEKOko Produkziaren Kudeaketa lerroak, balio-katedun produkzio prozesu oreaktuak definitzen ditu, fabrikazio bitartekoak bat datozeriarik fase bakoitzaren eta kalitate, epe eta kostuen beharrizanekin.

Guztia, Ikerketa Lerro honek prozesu produktiboen jasangarritasunarekin eta eko-eraginkortasunarekin duen konpromiso handia kontuan izanik.

Lerro honek, prozesuen oinarrizko printziocioetatik hasita, mekanizazio-prozesu tradizionaletan duen kontrola kontuan izanik (torneaketa, fresaketa, artezketa eta konposite piezen prozesaketa), prozesu bakoitzaren oinarrizko printziocioetan oinarrituta, 2012 ekitaldiko jarduera nagusia, prozesu berrien eta au-

rretik zeudenenei optimizazioa definitzeko mekanizazio eta fabrikazio enpresekin lankidetzen aritzea izan da. Gainera, lan zikloen optimizazioarekin edo material berrien makinatze-gaitasunaren azterketekin (hala nola metal-konposite stack-ak) harremana duten eta aurrelik garatuak izan diren proiektuak ziurtatu dira.


IK4-IDEKOko Produkzioaren Kudeaketa lerroak landu duen beste arlo bat, produkzio prozesuaren kudeaketa integrala eta baliaoren diagnostikoa izan dira. Horretarako, produktuaren aldakortasunaren kudeaketa eta optimizazioa, produzko fluxuen diseinua, bitartekoien asetasunaren ebaluazioa eta fluxuen eta informazioaren antolaketa egin dira. Aurreko guzti hauen garapenean, oinarrizko printziocio eta Lean-6

Sigma erremintak oinarri hartu dira, lankidetzan aritu izan garen erakundeen bikaintasun operazionala lortzeko helburuarekin.

Landutako eremuen artean, artezketa prozesuetan hozte-sistema berrien garapena izan da, gaur egungo sistemaren optimizazioan, hozte-ekipoen dimentsional menduan eta artezketa prozesuaren etekinean eragin zuzena duten eraginkortasun handiagodun piten garapenean egin delarik lanketa. Artezketa prozesuan aplikatutako MQL kriogenika tekniken aplikazioa ere landu da, zeinetan bideragarritasuna eta aplikazio eremuak baloratu diren.

02|

02. IKERKETA LERROAK



DINAMIKA ETA KONTROLA



Jokin Muñoz
Dinamika eta Kontrola lerroaren kudeatzailea

Dinamika eta Kontrola lerroak, esperientzia zabala eta nazioarteko prestigioa dauka ebaketa prozesuetan izaten diren bibrazio-arazoak konpontzeko garatzen dituen gailuetan eta ezagutzaren aplikazioan. 2012an izan dugun jarduera, marko honetan oinarritu da eta enpresei bibrazio-arazoentzako irtenbideak eskaini dizkiegu, bai makinen bibrazio estrukturalak konpontzeko baita produzko prozesuetako bibrazioak konpontzeko ere.

Bibrazioen eremuan izandako garapen teknologikoaren emaitza, monitorizatutako ekipo berri (IK-DAS) baten garapena izan da, 5 funtziointeligente dituena eta BIEMHn aurkeztua izan zena. Erabiltzailearentzako modu errazean aurkezten da, aditua izan beharrik ez dagoelarik. Erabiltzaileak bibrazioen eragina ezabatu edo gutxitu dezake. Funtzio hauen bidez, monitorizatu, proposatu, gidatu, neurtu... daiteke.

Beste alde batetik, kasu errealetan aplikatutako moteltze-aktibo sistemek balidazioa izan dugu, bai ebaketa prozesuen optimizaziorako baita makinen optimizazio estrukturalerako ere, deformazio bidezko trasformazio (rolling) sektorean eta makina-erreminta sektorean.

Zerbitzu hau, makina-erreminta ez den beste sektore batzuetara hedatu da: aleazio aeronautikoen mekanizazioa, ardatz eta trenetan rolling prozesua. Guztieta emaitza bikainak lortu dira, bai prozesuen hobekuntzan baita piezen kalitate eta fabrikazio kostuaren gutxitze nabarmenean ere.


Urte honetan, sektore ezberdinei eskainitako zerbitzuaren zabalkundeaz azpimarratu beharra dago, hala nola, aeronautika-aleazioen mekanizazioa, ardatzetan rolling prozesua eta tissue paperaren pro-

dukzioa. Guztieta emaitza bikainak lortu dira eta kasu batzuetan prozesua hobetzea ere lortu da. Beste batzuetan piezen kalitatea hobetzea eta fabrikazio kostua izugarri gutxitzea lortu da.

Etorkizunera begira ezarri diren erronken artean, gure jarduera sektore berrietara zabaltzea dago, hala nola, energia eta garraioa sektoretara. Merkatuari estandarizatutako zerbitzua eskaintzea ere badago, prezioan lehiakorragoak diren makinak lortzeko helburuarekin; teknologia bereizgarria izango duten makinak, ebaketa gaitasun handiarekin eta bibraziorik gabeak.

02|

02. IKERKETA LERROAK



DISEINU MEKANIKOA



Peio Olaskoaga
Diseinu Mekanikoa lerroaren kudeatzailea

IK4-IDEKOko Diseinu Mekanikoa lerroaren jarduera, irtenbideen sortze, simulazio eta diseinu xehetuak lortzea bideratuta dago. 2012ko ekitaldian zehar, lerroaren jarduera bi eremutan gauzatu da batez ere: Makina berriak eta gailu mekatroniko aurreratuak.

Energia kontsumoa eta jasangarritasun gaietan da goen kezka gero eta handiagoa da eta kezka hau fabrikazioaren eremuan ere badago. Administrazioak eta makinen fabrikatzale eta erabiltzaileek ere gai honetan arreta handiagoa jartzen ari dira. Horren adibide dira Europen erregulazioari lotuta dauden ekimenak, bai Europako Batasunak baita CECIMO makinen fabrikatzaleen Europako elkartea martxan jarritakoak. Azken urte hauetan, bietan parte hartu du Ik4-IDEKO, 2012. urtean parte-hartzea aktiboagoa izan duelarik. Azken urte honetan ISO TC39 WG12 taldean ere sartu gara; lan talde hau, makina-erreminten

energia kontsumoaren neurketarako estandar bat garatzen dihardu, ISO14955. Energiaren eraginkortasunaren arloan, IK4-IDEKOko jarduera ez da bakarrik makinen kontsumoa modu inkrementalean gutxitzea, baizik eta osagai mekaniko berritzaleen bitartez gutxitze radikalagoak lortu, makinen kontsumoan nabarmenki eraginez.


Ikerketa lerroaren beste lan eremu bat makina konzeptu berrien garapena da. Makinen ahalmena handitu edo prestazio berriaz hornitzeko helburuarekin, egitura, teknologia eta material berrietan lan egiten du. Azken urte honetan adibidez, makina eramangarri eta autonomo bat diseinatu da makinen bankaden floreteatua egiteko. Garapen honen helburua, makinen fabrikazioan gaur egun eskuz egiten diren eragiketa gaitz eta nekezak ordezkatzea da, makina txiki autonomo baten bitartez.

Makinenzako egiturekin harremana duten zenbait eremutan ere ahalegin handia egin da, kontzeptu berrietan eta material konposatuen sartzean oinarrituta. Zenbait aplikaziotan material hauek abantaila handiak dituzte disenu eta dimentsionamendu egokiarekin eraikitzen baldin badira eta kasu bakotzerako fabrikazioa modu zehatzean gauzatzen bada.

Garapen hauek etorkizuneko makinetan aplikatzea da IK4-IDEKOko Diseinu Mekanikoa lerroaren erronka. Horrela, makinen produktitatea eta doitasuna hobetuko dira eta ingurumenean duten eragina gutxitu egingo da, energia gutxiago kontsumituko duten makina jasangarriagoak diseinatuz.

02|

02. IKERKETA LERROAK



SOFTWARE ADIMENDUNA



Kenneth Lobato
Software Adimenduna lerroaren kudeatzailea

2012an IK4-IDEKOko Software Adimenduna lerroak izan dituen jardueren zutabeak ondorengoak dira: neurriko egindako irtenbideen integrazioa eta aplikazioen garapena, ikuspen artifizial aplikatua eta azkenik testu automatikoen azterketa eta hodei-arkitekturen garapena (cloud computing).

Ikuspen artifizialaren eremua, zientifikoki errekonozitutako algoritmoen ikerketan oinarritu da, teknologikoki mardulak, optimizatuak eta lehiakorrak diren irtenbideak sortzea lortu delarik. Garatutako hainbat gai ikuskapen eta Neurketa eremuan aplikatu dira.

Adimen Lehiakorren eremuan, adimen artifizialaren tekniken garapenean zentratu da ikerketa.

Orotariko Softwarearen gunean, programazio hizkuntzen azken belaunaldiak ikertzen ari gara, es-


kaintzen dituzten aukera guztiak aztertzen ari garelarik.

Aurre egin beharreko erronka teknologikoei dagokienez, ikuspen artifizialaren eremuan ondorengoak dira: lan eremuko talkak detektatzeko eta segurtasunerako sistemen garapena, baita industria guneetako 2D irudien karakterizazio zehatza ere. Adimen lehiakorren aplikatutako machine learning-ari dagokionez, text mining, data mining eta ontologias eremuetara bideratuko da ikerketa, ondorengo faseetarako zutabe izango dena: sailkapenerako, iragazketarako, lehen-tasunerako, gomendioetarako eta erabakiaren euskarrirako. Etorkizuneko zeharkako erronka, garapen arina duten eta probak egitera bideratuta dauden zikloen ezarprena da (jadanik kontrastatutakoa eta balidatutakoa berrerabiltea), softwarearen errendimenduaren optimizazioaren espezializazio gisa.

IK4-IDEKOko Software Adimenduna Lerroaren etorkizuneko apustua, neurriko egindako automatizazio eta garapenaren lanarekin jarraitzea da. Zerbitzu eta irtenbide hobeak bilatzeko gai berriak planteatu behar dira, non lerro honek enpresen lehiakortasuna handitzeko prestatua egon behar duen. Etorkizuna, gailu mugikorren erabilera orokorra bideratuko dela aurreikusten da (smartphone-ak, tablet-ak...), PLC/CNC-ak ordezkatzea sartutako PC industrialen biltartez, hodei-zerbitzu eta hodei-irtenbideen erabilera handitzea (SAAS, Software As A Service) eta erakunde industrialen arteko loturen orokortzea (bulego teknikoa, produkzio lerroak, makinak, ERP/MES/GMAO sistemak...), hauek guztiak “Internet of Things” paradigmari jarriki.

02|

02. IKERKETA LERROAK



TRANSFORMAZIO PROZESUAK



Jordi Figueras
Transformazio Prozesuak lerroaren kudeatzailea

Materialek eskatzen dituzten lan baldintza zorrotzak, berauen bizitza erabilgarriaren goranzko joera duten zehaztapenak eta eta materialen bizitza zikloa kontuan izanda, transformazio prozesuen lerroak, laser prozesuen teknologia emergenteen garapenean zentratu du bere jarduera. Alde batetik, txaparen ebaketa prozesuan ebaketa estrategia berriak garatu dira Iodiera handia duten piezei garrantzia berezia emanet. Bestetik, cladding laserra garatu da; jadanik frogatua dagoen teknologia da eta balio erantsi handia duten eta higadura jasateko sentiberak diren osagaien akatsak berresekuratzea edo konpontzea ahalbidetzen du, bai bere bizitza zikloan zehar, baita piezak sortzean ere. Eremu honetan, osagai aeronautikoen konponketei begira, laser bidezko materialen ekarpenetako sistema adimendunak garatu dira eta modu honetan, piezaren bizitza erabilgarriari dagokion kostu ekonomikoa gutxitzeko aukera eskaini zaie enpresei.

Lerro honek garatu duen beste teknologia bat, osagai handien fabrikazioan erabiltzen diren material komposituen fabrikazio teknologien garapena izan da, sektore eolikoan eta garraio sektorean aplikatu daitekeena. Geruzaz geruza ehunen impregnazioa eta ontzea lortzeko teknologia propioak ikertu eta garatu ditugu, hauen aruntasuna handitzeko helburuarekin, Iodiera handiei zuzenduta eta langilearen segurtasunaren ikuspegitik, gas toxikoen isuria gutxitzeko helburuarekin.


Ehunen industriaren dibertsifikazioa ekar dezaketen ikerketa lerro berrietara zuzendutako merkatu azterketen eta joeren emaitzak kontuan izanik, eta beste jarduera eremu batzuetan jasotako ezagupenen sinergiak aprobetxaturik, scaffolds-en fabrikaziorako prototipo baten diseinua eta fabrikazioa azpimarratu beharra dago. Horrela, medikuntza sektorera jauzia

eman dugu, sektore honetara begira dibertsifikazio-rako eta batez ere ehunen birsotzerako aukera ematen duelarik.

Ikerketa arloan lerro honek etorkizunera begira dituen erronken artean, karbono-zuntz lehorren azterketa eta portaera azpimarratu behar dira. Honen helburua, gaur egun beste material eta produkzio-sistemen bidez egiten diren osagaien fabrikaziorako sistema berriak garatzea da.

02|

02. IKERKETA LERROAK



IKUSKAPENA ETA NEURKETA



Alberto Mendikute

Ikuskapena eta Neurketa lerroaren kudeatzailea

Ikuskapena eta Neurketa lerroaren jardueraren bi ardatz nagusiak hauek izan dira: Ikuskapen ez-suntsitzalea (NDT) eta ikusmen bidezko neurketa sistemak (fotogrametria). Garapen hauetako batzuk industrializazioa fasera iritsi dira eta modu honetan sortutako garapenen praktikotasuna sendotu egin da.

Lehen lan arloan, metaletan barneko defektologia ikuskapenak egiteko prototipoak egin dira. Horietako bat, phased-array ultrasoinuzko ikuskapen integral baten irtenbide berria da eta mantentze lanen arauak betez, trenen gurpilen barruko akatsak neurtzeko balio du.

Azpimarratzeko da ultrasoinuen transduktore berria. Marruskadura bidezko soldaduren ikuskapen integrallerako bitarteko fluidoa ezabatzearen ondorioz, mantentze kostu txikiagoa duen ikuskapen automatikorako irtenbidea eskaintzen du eta ikuskapenean abiadura 5 aldiz handitzen du.

Ikusmen bidezko Sistemetan, algoritmo fotogrametriko propioak garatu dira, estatuan neurketarako irtenbide integral bat edukitzen lehenak izan garelarik. Honek, pieza gordinak lerrokatzeko sistema bat sortzeko aukera eman digu (patentatu egin dena), osagai handien mekanizaziorako makina-erreminten neurketa automatizatu integratuen irtenbideekin konbinazioan eta prozesuan denboraren eta kostuaren murrizketa nabarmen gutxitzea lortu da.


Patentatu dugun beste garapen bat, trenen sektoreko mantentze lanetan gurpila gelditu gabe profila eta diametroa neurtzeko Sistema garatzea izan da. Honek, profila eta diametroa aldiberean neurtzea ahalbidetzen du, trenbidean aldaketarik egin gabe eta trena 15km/h-ko abiaduran pasatzen delarik. Trenen sektorean jarraituz, gurpilaren profila neurtzeko ikusmen sisteman kalibrazio azkarra egiteko soluzio berria ere garatu da. Honen bidez, gaur egun behar den kalibrazio den-

bora gutxitu egiten da, egunak behar izatetik orduak behar izatera pasatuz.

Ikuskapen eta Neurketa lerroaren etorkizuna, ikerketa eta garapen jardueretan jarraitzea da, fabrikazio lerroetan automatizagarri eta integragarri diren ikuskapen eta neurketa sistema berrietan aurreikusten diren aukera handiei erantzuna emateko. Horrela bada, ikusmenaren eremuan, teknologia berrien garapenean berritzeko daukagun apustua azpimarratzeko da. Teknologia berri hauek, ikusmen bidezko 3D neurketa sistemin irisgarriak diren prestazioetan jauzi kualitatiborako aukera emango dute, abiadura eta doitasun (<mikra) handiko prestazioekin eta teknologia berriekin, hala nola, holografia digitala.

02|

02. IKERKETA LERROAK



MIKROTEKNOLOGIA ETA ULTRADOITASUNA



Harkaitz Urreta
Mikroteknologia eta Ultradoitasuna
Lerroaren kudeatzailea

2012.urtean zehar Mikroteknologia eta Ultradoitasuna lerroak aztertu dituen gaien artean, ondorengoak daude: ultradoitasun makinaren garapena, pieza azpimikrometrikoen fabrikazio prozesuak eta doitasunezko gailu mekatronikoen garapena.

Mikro-fabrikazio prozesuen arloan, gainazal funtzionaletan zentratu da gure jarduera ikertzailea, zehatz mehatz mikrotesturazioan. Landu diren prozesuak, fre-saketa, diamante naturalaren bidezko torneaketa eta pultsaketa maiztasun handiko laser iturriak piko-segundutan izan dira. Horretarako, ultradoitasun makinak erabili izan dira 50 mikra arteko diametrodun erremintekin, osasun arloaren barruan sektore oftalmologikorako eta hortz sektorerako mikro-piezak egiteko. Doitasuna mugatzen duten arazo anitzei erantzuna ematearen erronkari aurre egin dio lerro honek, hala nola, giro-temperaturaren aldaketek eta makina gauzatzen ari den prozesuak sortutako deformazio termikoak.

Kontaktu gabeko gidatze tekniketan izandako aurrerapena azpimarratu beharra dago. Arlo honetan, kojinetxe aeroestatiko aktiboen ultradoitasunezko gidatzean etengabeko garapena egiten ari gara.

